


Hezkuntza-zentro eraldatzaileen ezaugarriak



Ikastetxea eta tokia:

Pablo Picasso BHI eta Santa M^a
de los Angeles CDP, Malaga.

Data: 2017-2018ko ikasturtea.

Harremanetarako pertsona:

Marisol Aneas (BHI P.P.)
eta M^a Eugenia García
(Santa M^a CDP).

Harremanetarako datuak:

marisoleconomia@gmail.com
egarcia@santamariadelosangeles.es

Zentroaren testuingurua, hezkuntza-maila eta ikasleen profila

Pablo Picasso BHI hezkuntza-komunitatean, 680
ikasle daude matrikulatuta, 25 taldetan banatuta. 59
irakasle daude, eta 10 pertsona administrazioan eta
zerbitzuetan.

Hezkuntza-zentro eraldatzaileen ezaugarriak

Hezkuntza-eskaintza:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen den 19 talde, 513 ikasle.
- 1. Batxilergoko Zientzia arloko talde bat, 18 ikasle.
- 1. Batxilergoko Humanitate eta Gizarte Zientziak arloko talde bat, 40 ikasle.
- 2. Batxilergoko Zientzia arloko talde bat, 15 ikasle.
- 2. Batxilergoko Humanitate eta Gizarte Zientziak arloko talde bat, 38 ikasle.
- Erdi-mailako Heziketa Zikloko 1. mailako talde bat, 33 ikasle.
- Erdi-mailako Heziketa Zikloko 2. mailako talde bat, 20 ikasle.

DBH hasten duten ikasle gehienak Ramón Simonet HLHtik datoz, eta beste batzuk, gutxiago, Manuel Garvayo HLHtik. Batxilergoan, atxikitako zentroetatik datozen ikasleez gain, inguruko itunpeko ikastetxeetatik datozenak ere sartzen dira. Heziketa Zikloko ikasleei dagokienez, zentroari Barruti Bakarreko prozesu zentralizatuaren bidez esleitzen zaizkio, unibertsitatekoaren parekoa. Haren bidez, ikasturte bakoitzean hainbat ikastetxetarako esleipenak egiten dira, interesdunen eskaeren arabera.

Sta M^a de los Ángeles CDP. Irakaskuntzako profesionalek osatutako kooperatiba-elkarte bat da, eta haren helburua da batxilergoko mailako eta erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetako hezkuntza eskaintzea.

Malagako auzune jendetsu batean dago kokatuta, eta ikasleen profila askotarikoa da, bereziki hezkuntza-zikloetan, ez baitatoz soilik hiriburutik, baizik eta baita probintziatik eta Andaluziako beste leku batzuetatik ere.

Irakasle-taldea 43 pertsonak osatzen dute, espezialitate desberdinetakoak.

Batxilergoko 6 ikasle talde dago, humanitateak eta gizarte-zientziak eta zientziak arloetan.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan, espezialitate hauek ematen dira: Erizaintzako zaintzen laguntza; Farmazia eta parafarmazia; Administrazio-kudeaketa eta Merkataritza-jarduerak.

Goi-mailako heziketa-zikloak: Dietetika; Administrazioa eta Finantzak eta Bidaia-agentzia eta Ekitaldien Kudeaketa.

Gainera, dietetikako goi-mailako zikloa urrutitik ere ematen da, eta farmaziakoa, erdipresentzial modalitatean.

Zikloetan, askotariko adinak daude, batxilergoko ikasleen aldean, askoz ere homogeenagoa baita hori, ia guztiak DBHtik baitatoz. Ikasleak, guztira, 600 bat dira.

Esperientziaren azalpen laburra

Zertan zetzan?

Hainbat prestakuntza- eta lan-saio egin ziren, barneratuta dituzten eta ez dituzten ezaugarrien inguruan; zein lehenetsi nahi den, eta aurrera jarraitzeko bidea. Hainbat dinamika erabili ziren: denbora-lerroa, zer egin dugun, nola ari ginen egiten, norekin, eta zein baliabide genituen. Denbora-lerrotik abiatuta eta ezaugarriak aztertu ondoren, adostu genuen zer lehenetsi nahi genuen hurrengo ikasturterako. Ekintza-planak abiapuntua du nora iritsi nahi dugun, ekintzak, eta hori guztia koordinatuko dute talde eragilea, baita plan bat ere, ondoren ebaluatzeko.

Zein zen helburua?

Zentroaren diagnostiko bat izatea, ezaugarriei zegokienez; egindako esperientzia sistematizatzen ikastea eta hurrengo pausoak ezartzea, aurrera jarraitzeko.

Helburua da hezkuntza-zentro eraldatzaile bat izaten lagunduko dituguten ezaugarriak sartzen jarraitzea. Zer, nola eta norekin egiten ari garen hausnartzea.

Zer egin nuen, eta nola?

Sta M^a de los Ángeles CDP.

Elkarbizitzarako klaustroak erabiltzea irakasleak eskola eraldatzaileen ezaugarrien inguruan trebatzeko. Klaustro horiek Interedeko teknikariak gidatu zituzten.

Haiek proposatutako hainbat metodologiarekin, lehenik diagnostikoa egin zen. Ondoren, lan egiten jarraitzeko ezaugarriak lehenetsi ziren, eta hemendik aurrera nondik jarraitu ari gara lantzen.

2018/19ko ikasturteko Lan Plana lehenetsitako ezaugarri hauetan oinarrituta egingo da:

- Oinarriak, ikuspegia eta balioak: 4. ezaugarria: parte-hartzea.
- Pedagogia-giltzarriak: 6. ezaugarria: ikaskuntza sozio-emozionala; 8.: metodologia kritiko eta gogoetatsuak, eta 10.: ebaluazioa.
- Zentroko politikak: 14. ezaugarria: botere-harremanen eta zaintzen arreta.



Esperientziaren azalpen laburra

Pablo Picasso BHI.

Bake-eskola proiektuaren lantaldea osatzen duten planen eta programen koordinatzaileekin, Koordinazio Pedagogikoko Talde Teknikoko kideekin, sailetako buruekin (arloko koordinazioak) eta zuzendaritza-taldearekin bilera.

Bileretan, ezaugarrien dokumentua landu zen, haren aplikazioa eta gure zentrorra egokitzea ikusiz.

2018/19ko ikasturteko Lan Plana lehenetsitako ezaugarri hauetan oinarrituta egingo da:

- Oinarriak, ikuspegia eta balioak:
 - Metodolofiak: 6., 7., eta 8. ezaugarria eta 10. ikaskuntzak sortzen dituen ebaluazioa.
 - Plangintza eta antolakuntza; II. ezaugarria HEHGren curriculuma ikasgai guztietan, eta 15. ezaugarria: inguruarekin eta sarean lan egitea.

Zer lortu dut/dugu?



Lorpen garrantzitsuetako bat da hiritartasun globalerako hezkuntza eraldatzaileari buruzko lerro estrategiko bat sartu dela kooperatibaren Plan Estrategikoan eta BHIko ZHPan.

Sta M^a de los Ángeles CDP.

Beste lorpen bat da zentroko hezkuntza-proiektuan sartu dela.

Hortik abiatuta, hainbat plan eta programatan sartu da, eta, azkenik, bai irakasleen trebakuntza dakartenetan eta bai beste batzuetan; tutoretza-ekintza, elkarbizitza-plana...

Hezkuntza eraldatzailea plan guztietan sartuta egotea hasitako bidea da, eta emaitzak ematen ari dena (egiten diren jarduera gehien-gehienek ikuspegi hori dute).

Bestetik, lortu da zentroak lankidetzan diharduen CGKE-ekiko harremana nabarmen sendotu dela, InteRedekin, besteak beste; aukera ematen

Hezkuntza-zentro eraldatzaileen ezaugarriak

Esperientziaren azalpen laburra

Eskola-egitura
eta -testuinguruko
zein elementu uste
dut izan direla
lorpenak eskuratzeko
bultzada edo
balazta?



dute beren hezkuntza-proiektuak zentroan garatzeko; lankidetzan dago lan-lerro honetan kualifikatutako kanpoko agenteekin, eta laguntza handia.

Pablo Picasso BHI.

Irakasleekin, lan egiteko beste modu bat, hainbat diziplinarteko plan eta programa garatzearen bidez, zentroan ezarritako gaien lerro baten bitartez curriculumeko edozein eduki garatzeko.

Irakasleekin, ohiko edukiei heltzeko beste modu berritzaile bat; horrez gain, lantalde horietan inplikaturako irakasleekin, prestakuntza pertsonala.

Zentroa hezkuntza eraldatzailea ari da sartzen hezkuntza-komunitate osoan, eta horrek zentroak elkarreragina duen edozein eremutan ikus daiteke, barruan eta kanpoan.

Sta M^a de los Ángeles CDP.

Oztopo nagusia da irakasleek ez dutela denborarik lan-bilera gehiagotarako. Zentroan goizeko eta arratsaldeko ordutegia dago, eta hori eragozpen handi bat da koordina gaitezen, askotariko proiektuen saturazioaz gain.

Bestalde, zuzendaritza-taldeak eta kooperatibako artezkaritza-kontseiluak beti babestu dute lana, eta horrek ekarri du posible izatea zentroko dokumentu estrategikoetan sartzea.

Aldeko beste elementu bat izan da InteRedekin eta lerro honetan lan egiten duten beste erakunde batzuekin harreman ona eta estua izatea.

Pablo Picasso BHI.

Lantaldearen koordinazioa (planak eta programak, sailtako buruak, ETCP eta zuzendaritza-taldea) eta informazioa klaustroko gainerakoei pasatzea.

Egindako lana sistematizatzeko, zentroan egindako jardueretako alderdi jakin batzuekin batera, ezaugarriak lehenesteko orduan kontzientzia hartzea erraztu du.

Esperientziaren azalpen laburra

**Zer ikasi dut
eta zer erronka
agertu dira?**

**Esperientzia
hau prestatzen
eta gauzatzen
lagundu duten
pertsonak eta
erakundeak:**

**Laguntzazko/
erreferentziazko
baliabideak edo
materialak:**

Egindakoaren gaineko kontzientzia hartzea, indarguneak, ahulguneak, aukerak eta arriskuak baieztatzea...

Egiten den guztia sistematizatzen ikastea, aurrera egiten jarraitu ahal izateko langileak saturatu gabe.

Testuinguruaren, erakundearen arteko eta familien arteko sareen garrantzia. Hezkuntza zentro eraldatzaile bat izateak esan nahi du aintzat hartzea ikuspegiak, begiradak, nondik egiten dugun lan, nola laguntzen dugun. Eta horren isla ikusi dugu landu ahal izan ditugun ezaugarrietan.

Garrantzitsuena InteRedek emandako babes teknikoa izan da.

Sta M^a de los Ángeles CDP.

«Elkarbizitza-berdintasuna» talde bat sortzea, zentroko talde eragilea izan dena: Eskola Bake Gune proiektuko koordinazioak, Berdintasun Planeko koordinatzaileak eta orientatzaileak osatu dute.

Pablo Picasso BHI.

Koordinaziorik onenena, Eskola Bake Gune taldekoa; plan eta programetako koordinatzaileak eta sailtako eta KPTTko koordinatzaileak osatua. Zuzendaritza-taldearen babesa.

Material nagusia ezaugarrien dokumentua izan da, «Hezkuntza Zentro Eraldatzaileak. Ezaugarriak eta aurrera egiteko proposamenak.» Gainera, hasiera-hasieratik hura egiten parte hartu izana ikaskizuna izan da. <http://www.educaciontransformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2018/11/centros-educativos-transformadores-version-online.pdf>

Prestakuntza-saioetan laguntzeko, ludopedagogia erreferentziazat duten dinamika erabili dira.

<https://intered.org/pedagogiadeloscuidados/es/2017/06/27/ludopedagogia-jugar-para-conocer-conocer-para-transformar/>

Finantzaketa:

